

Oihana Iguaran Barandiaran

## Ur-jauzi hotsa

Langar itsutan basoa  
orbel gainean pausoa  
adar zein sustrai iraulientzat  
goi ta behe da lausoa.

Hausnarra bizimodua,  
isil, barruko korua;  
zeruari lur eman zenion  
ta herri honi zorua.

Begi zorrotz, gorputz zalu  
*suak erreko ez balu*  
erresuminak ez leukake nork  
pentsatu eta azaldu.

Kondairen kontra ta libre  
izateko irizpide  
bati segika egin diguzu  
beste herri bat posible.

Ideien xake-matea  
obedientzien katea,  
zure hautua: egien aurka  
galdera bat ematea.

Xake taulak beltz ta zuri,  
grisak bilatzeko zubi,  
dualismoak deseraikita  
koloretsua dirudi.

Bere hitzaren oreka  
zuk eman zenion eta  
maiz *xentimoka pentsatzen duen*  
lur honi bere moneta.

*Libre ezinda*, hoberik  
eraiki nahian gorderik;  
eskertzen dizut ez edukia  
etsitzeko adorerik.

*Bizitza, arbola beltza;*  
amets gabeko ametz  
eta *libre nahi ilunabar bat*  
argitzera zeruertza.

Erlojuak denbora nahi  
heriotza neurtzeko gai...  
gaur erlojua gelditu da ta  
egunak aurrera darrai.

Esan zenuen irauñ nahiz:  
*bide luzean hilgo naiz.*  
Agurtzeko da berandu baina  
oroitzeko beti garaiz.

Gatazka, utopi, tabu  
hoien oinorde gara gu  
zure lorratzei esker aurretik  
bide luzea daukagu.

Harrigainak goroldio,  
lanbroaren ondorio  
pago lotien umotzeari  
presa nork emango dio?

Baso isilak adio,  
ilbeteak hala dio:  
aske nahiari harkaitz artetik  
ur-jauzi hotsa dario.